**OHIKO OSOKO BILKURA / PLENO ORDINARIO**

**2019KO martxoaren 25A / 25 DE MARZO DE 2019**

**BERTARATUAK / ASISTENTES**

<table>
<tr>
<td>

**IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL**

D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna

</td>
<td>

**IHARDUNEKO ALKATEA / ALCALDE EN FUNCIONES**

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna (PSE-EE).

**ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE**

D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna (PSE-EE).<br>
Dña. Ana Telleria Echeverria andrea (PSE-EE).<br>
D. Arcadio Benítez Dávila jauna (PSE-EE).<br>
D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna (PSE-EE).<br>
D. Jon Iraola Iriondo jauna. (PSE-EE).

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES**

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea (PSE-EE).<br>
Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea (PSE-EE).<br>
Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea (PSE-EE).<br>
Dña. Igone Lamarain Cobo andrea (Euskal Herria Bildu).<br>
D. Josu Cristobal Churruca jauna (Euskal Herria Bildu).<br>
D. Gorka Errasti Bernedo jauna (Euskal Herria Bildu).<br>
Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (Euskal Herria Bildu).<br>
D. Iñaki Penedo Eubieta jauna (Euskal Herria Bildu).<br>
Dña. Eva Juez Garmendia andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>
D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna (Eibarko EAJ-PNV).<br>
Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>
D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (Eibarko EAJ-PNV).<br>
Dña. Maria elena Ibañez Anucibay andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>
Dña. María Jesús Aguirre Unceta andrea (Irabazi).

</td>
</tr>
</table>

Eibarko hirian, 2019ko martxoaren 25ean, arratsaldeko zazpi eta erdiak izanik, Udal Osoko bilkura egin zen ohiko bileran, udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua; Miguel de los Toyos Nazabal Alkate Presidente jaunak justifikatu du bere absentzia.

En la Ciudad de Eibar, a 25 de marzo de 2019 y siendo las diecinueve horas treinta minutos, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente mencionados/as, habiendo justificado su ausencia el Alcalde Presidente D. Miguel de los Toyos Nazabal.

Iharduneko Alkatea, Alberto Albistegui Zamacola jauna da, lehen alkateordea.

Actúa como Alcalde en funciones el primer teniente alcalde, D. Alberto Albistegui Zamacola.

Iharduneko Alkatea jaunak bilerari hasiera eman dio eta aztertu da honako

El Sr. Alcalde en funciones declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

## GAI-ZERRENDA

## ORDEN DEL DÍA

**1. 2019ko urtarrilaren 2an Udalbatzak egindako bilkurari dagokion akta-zirriborroa onartzea.**

**1. Aprobación del borrador del acta correspondiente a la sesión de 2 de enero de 2019.**

Adierazitako akatsa zuzenduta, dagokion akta bozkatu

Sometida a votación el acta correspondiente a la sesión plenaria

ondoren, 2019ko urtarrilaren 2ko ohiko osoko bilkurari dagokion akta bozkatu ondoren, onartu egin da aldeko hamabost botoren gehiengoarekin (PSE-EE eta Eibarko EAJ-PNV) eta bost abstentziorekin (Euskal Herria Bildu eta Irabazi).

ordinaria de 2 de enero de 2019, queda aprobada por mayoría de quince votos a favor (PSE-EE y Eibarko EAJ-PNV) y cinco abstenciones (Euskal Herria Bildu e Irabazi).

**2. Alkatetzaren ebazpenen kontu-ematea.**

**2. Dación de cuentas de Resoluciones de Alcaldía.**

Azaroaren 28ko, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudiari buruzko 2568/1986 Errege Dekretuaren 234. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, alkate-udalburu jaunak azken osoko bilkura arruntetik hona emandako Alkatetzaren ebazpenen edukiaren berri eman du.

De acuerdo con lo previsto en el artículo 234 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales el Sr. Alcalde-Presidente da cuenta del contenido de las Resoluciones de Alcaldía dictadas desde la última sesión plenaria ordinaria.

Udalkideak jakitun geratzen dira.

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

**3. Kudeaketa materialaren gomendioari buruzko hitzarmena, Eibarko Udalaren eta Polizia eta Larrialdietarako Euskal**

**3. Convenio de encomienda de gestión material entre el Ayuntamiento de Eibar y la Academia Vasca de Policía y**

**Akademiaren artekoa, Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako Agente kategorian sartzeko hautaketa-prozesuen kudeaketarako.**

**Emergencias para la gestión de los procesos selectivos de ingreso en la categoría de Agente de la Escala Básica de Policía Local.**

**Lamarain Cobo andreak** gogorarazi du ez dela lehen aldia hitzarmen hau proposatzen duela eta, beraz, denek dakitela zein den Euskal Herria Bilduren iritzia gaiari buruz. Jakitun da argudiatuko dela horrela eginda hautaketa-prozesuak azkartu egiten direla, baina, bere iritziz, eztabaidatu behar dena da gure herriarentzat nahi dugun Udaltzaingo eredua. Bere taldean beti defendatu dute gertuko udaltzaingo bat eta Eibar ondo ezagutzen duena.

La **Sra. Lamarain Cobo** recuerda que no es la primera vez que se propone este convenio y que, por tanto, ya es conocida la opinión del grupo municipal de Euskal Herria Bildu al respecto. Es consciente de que se argumentará que de esta forma se agilizan los procesos selectivos, pero, a su entender, lo que está en discusión es el modelo de Policía Local que se desea para nuestra ciudad. Desde su grupo siempre han defendido una policía cercana y que posea un buen conocimiento de Eibar.

Testuinguru horretan, esan da baita ere ezinezkoa dela hautaketa-prozesuak beste era batera egitea, baina adibide moduan jarri ditu beste udal batzuetan egin diren lan-poltsak. Beste lanpostu batzuetan, Eibarko Udalak aurretik definitu ditu lanpostuen ezaugarri eta edukiak eta informazio horretan oinarrituta diseinatu du hautaketa-prozesua.

En este contexto, también se ha esgrimido que no es posible realizar los procesos selectivos de otra manera, pero pone como ejemplo las bolsas de trabajo que se han creado en diversos Ayuntamientos. En el caso de otros puestos de trabajo, el Ayuntamiento de Eibar ha definido previamente las características y el contenido de los

Beraz, udaltzainen aukeraketan prozedura berbera jarraitu beharko litzateke.

mismos y, de acuerdo con esta información ha diseñado el correspondiente proceso selectivo. Por tanto, en la selección de Agentes de Policía debería seguirse el mismo proceder.

Azkenik, galdetu du ea Eibarko kaleetan zer nahi dugun, polizia edo gertuko udaltzainak, horretaz egin beharko da gogoeta lehenago edo geroago.

Para finalizar, pregunta sobre si queremos contar en las calles de Eibar con policía o agente de proximidad, cuestión sobre la que más pronto que tarde habrá que reflexionar.

Azaldutakoa kontuan hartuta, bere taldearen kontrako botoa iragarri du.

De acuerdo con lo expuesto, anuncia el voto en contra de su grupo.

**Mendicute Rodríguez jaunak,** berriz, babestu egingo du kudeaketa-gomendioari buruzko hitzarmena sinatzea, positiboa iruditzen zaiolako Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak Eibarko Udaltzaingoaren Agenteei trebakuntza ematea, legeak araututako polizia-gorputz bat baitira, beren eskumen-esparru eta parte-hartze zein erantzukizunekin herritarren segurtasun-arloan. Era horretan, hitzarmen honek ahalbidetzen dituen Europako estandar eta arauei egokitutako formakuntza izango dute.

El **Sr. Mendicute Rodríguez**, en cambio, respaldará la firma del convenio de encomienda de gestión porque considera positivo que la Academia Vasca de Policía y Emergencias forme a los nuevos Agentes del Cuerpo de la Policía Municipal de Eibar, ya que integran un cuerpo policial regulado por ley con su ámbito competencial y su participación y responsabilidad en materia de seguridad ciudadana. De esta manera, contarán con la formación adaptada a los estándares y normativa europeos que este convenio facilita.

Bere iritziz, udaltzainek Eibarrren ere badiren XXI. mendeko segurtasun-erronka berriei erantzun behar diete eta bere taldeak erronka horiei buruz hitz egin nahi luke Segurtasun Batzorde batean; izan ere, lan hori udal talde guztien lan partekatu bat izan behar da, eta ez bakarrik Toki Gobernu Batzarrean erantzukizunak dituztenena. Zentzu horretan, Eibarko EAJ-PNV udal taldeak hainbat aldiz proposatu du Trafiko Batzorde Aholkulariak gai horiek ere aztertzea, baina eskaera hori ez da aintzat hartu agintaldi honetan, eta, ondorioz, konpromiso hori hartuko du berak hurrengo lau urteotan.

A su entender, las policías municipales deben responder a los nuevos retos de seguridad del siglo XXI que se dan también en Eibar y de los que su grupo desearía hablar en una Comisión de Seguridad, dado que éste ha de ser un trabajo compartido entre los integrantes de todos los grupos municipales y no solo de aquellos que ostentan responsabilidades en la Junta de Gobierno Local. En este sentido, el grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV ha propuesto en diversas ocasiones que la Comisión Asesora de Tráfico tratase también estos asuntos, petición que no ha sido atendida a lo largo de esta mandato y que, en consecuencia, es un compromiso que desea adquirir de cara a los próximos cuatro años.

**Aguirre Unceta andrea** ere hitzarmen hau sinatzearen aldekoa da, uste duelako Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak ematen duen formakuntzak hobeto erantzuten diela agente berrien premiei eta erraztu egiten dituela nabarmen hautaketa-prozesuak.

La **Sra. Aguirre Unceta** se muestra igualmente partidaria de la firma de este convenio porque entiende que la formación que proporciona la Academia Vasca de Policía y Emergencias responde mejor a las necesidades de las y los nuevos Agentes y facilita sobremanera los procesos selectivos.

**Benítez Dávila jaunak** babestu egin du Udalbatzan planteatzen den proposamena eta gogorarazi du Udal honek definitu zuela bere polizia-eredua 1979an. Bere ustez, Polizia herritarrengandik gertu egotearen inguruko eztabaida ez dagokio 2019. urteari, eta prestatuta egon behar da aurre egin beharreko egoeretarako, eta, horretarako, ondo trebatutako pertsona egokiak eduki behar ditu. Defendatu du Eibarkoa Polizia gertukoa dela, etengabe dagoena kalean herritarren premiei erantzuten. Baina beste kontu bat da zein den Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiaren adituei esleitu behar zaien formakuntza.

El **Sr. Benítez Dávila** apoya la propuesta que se plantea ante el Pleno y recuerda que este Ayuntamiento ya definió su modelo policial en el año 1979. Entiende que el debate sobre la cercanía de la Policía a la población no se corresponde al año 2019 y debe estar preparada para las situaciones concretas a las que ha de enfrentarse, para eso, debe contar con las personas adecuadamente formadas. Defiende que la de Eibar es una Policía cercana que se encuentra permanentemente en la calle atendiendo las necesidades de la ciudadanía. Pero cuestión distinta es la formación que ha de encomendarse a los expertos de la Academia Vasca de Policía y Emergencias.

**Lamarain Cobo andreak** esan du bere planteamendua PSE-EE udal taldearen bozeramaleak adierazitakoaren erabat kontrakoa dela, eta ukatu egin du eztabaida denik Udaltzaingoaren formakuntza nolakoa izan behar den, sinatu nahi den hitzarmenak langileak hautatzea

La **Sra. Lamarain Cobo** expresa su planteamiento completamente contrario al expresado por el portavoz del grupo municipal del PSE-EE al negar que el debate gire en torno a cómo debe ser la formación de la Policía Local, puesto que el convenio que se

baitu helburu. Horri dagokionez, berriz ere galdetu du zergatik Eibarko Udalak ez duen berak hautaketa egiten, gero, hautatutako pertsonak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiara bidaltzeko, han formazioa jaso dezaten. Azkenik, zalantzan jarri du Eibarko Toki Poliziak orain arte bezain gertukoa izaten jarraituko duenik, baldin eta kudeaketa materialaren gomendioari buruzko hitzarmen honek proposatutako eredua aplikatzen bada.

**Mendicute Rodriguez jaunak** galdetu du ea zer irizpide aldatu beharko litzatekeen Toki Poliziaren hautaketa-prozesuetan; izan ere, ondoriozta daiteke ez dagoela ados Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak agenteak hautatzeko irizpideekin. Azpimarratzen du kontraesankortzat planteatzen direla polizia eredu bat gertuko agentearen ereduarekin, baina gogorarazi du Udaltzaingoaren funtzioak Eusko Legebiltzarraren Lege batean zehaztuta daudela. Arrazoi horrengatik, prest daude aztertzeko ea beharrezkoak diran mugikortasun-agenteak, Polizia Agente ez direnak,

pretende firmar tiene por objeto la selección del personal. A este respecto, insiste en preguntar por qué razón el Ayuntamiento de Eibar no lleva a cabo su propia selección para, posteriormente, enviar a las personas seleccionadas a la Academia Vasca de Policía y Emergencias para formarse. Por último, cuestiona que la Policía Local de Eibar continúe siendo tan cercana como hasta ahora en el caso de que se continúe aplicando el modelo que propone este convenio de encomienda de gestión.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** pregunta qué criterios habría que cambiar en los procesos selectivos de Policía Local ya que parece deducirse que no se está de acuerdo con los que regulan la selección de agentes por parte de la Academia Vasca de Policía y Emergencias. Destaca que se plantea como contradictorios un modelo policial con el de agente de proximidad, pero recuerda que las funciones de la Policía Local ya están definidas por una Ley del Parlamento Vasco. Por esta razón, están dispuestos a analizar si son necesarios agentes de movilidad diferenciados de los Agentes de

edo ea horiek errekadista-lanak egin behar dituzten. Bere iritziz, bateragarria izan daiteke herritarrekiko gertutasuna eta agenteen izaera poliziala, baina egia ere bada 1979 urteko segurtasun-erronkak 40 urte geroago ez direla erronka berberak; desafio horiek aldatu egin dira, oro har, eta baita Eibarren ere, baina horrek ez du zertan zalantzan jarri Euskadiko Toki Poliziaren eredua. Ondorioz, berretsi egin du proposamen honen aldeko bozka eta Toki Poliziari eskertu egiten dio bere lana, eta berriz ere errepikatu du Segurtasun Batzorde baten beharra dagoela lan hori hobetzeko.

Policía o si éstos deben de realizar labores de recadistas. Según su criterio, no resulta incompatible la cercanía con la ciudadanía con el carácter policial de los Agentes, pero no resulta menos cierto que los retos de seguridad del año 1979 no son los mismos 40 años después; estos retos han variado, en general, y también en Eibar, pero no por eso hay que poner en cuestión el modelo de Policía Local de Euskadi. En consecuencia, se reafirma en el apoyo a esta propuesta y agradece a la Policía Local su labor, insistiendo, una vez más, en la necesidad de una Comisión de Seguridad que tenga por objeto mejorar esa labor.

**Benítez Dávila jaunak** jakin nahi luke zergatik hautatu behar duen Toki Poliziaren pertsonala Udalak; izan ere, ez dago inolako arrazoirik esateko Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak jarraitutako prozedura ez dela egokia edo ez dituela betetzen Eibarren jarraituko liratekeen baldintzak.

El **Sr. Benítez Dávila** desearía saber por qué razón el Ayuntamiento debe seleccionar el personal de la Policía Local, ya que no existe ninguna evidencia que ponga de manifiesto que el procedimiento seguido por la Academia Vasca de Policía y Emergencias no es adecuado o que no cumple con los requisitos que seguirían en Eibar.

**IRIZPENA**

Ikusita kudeaketa materialaren gomendioari buruzko hitzarmena, Eibarko Udalaren eta Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiaren artekoa, Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako Agente kategorian sartzeko hautaketa-prozesuen kudeaketarako.

Ikusita Idazkaritzaren 2019ko martxoaren 13ko txostena.

Kontuan hartuta Udalaren interesekoa dela hitzarmena onartzea eta formalizatzea.

Kontuan hartuta urriaren 1eko Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 11. artikuluan xedatutakoa

Kontuan hartuta 2019ko martxoaren 20ko Erakunde, Lurralde eta Lege-gaietarako Lan Batzordearen aldeko irizpena.

**DICTAMEN**

Visto el Convenio de encomienda de gestión material entre el Ayuntamiento de Eibar y la Academia Vasca de Policía y Emergencias para la gestión de los procesos selectivos de ingreso en la categoría de Agente de la Escala Básica de Policía Local.

Visto el informe de Secretaría, de 13 de marzo de 2019.

Considerando de interés municipal la aprobación y formalización del referido Convenio.

Considerando lo dispuesto en el artículo 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, del Régimen Jurídico del Sector Público

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos e Institucionales, de 20 de marzo de 2019.

Osoko Bilkurak, gehiengoz, aldeko hamasei botoren gehiengoarekin (PSE-EE, Eibarko EAJ-PNV eta Irabazi) eta sei abstentziorekin (Euskal Herria Bildu), ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, por mayoría de dieciséis votos a favor (PSE-EE, Eibarko EAJ-PNV e Irabazi) y seis abstenciones (Euskal Herria Bildu), adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

Lehena.- Onartzea kudeaketa materialaren gomendioari buruzko hitzarmena, Eibarko Udalaren eta Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiaren artekoa, Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako Agente kategorian sartzeko hautaketa-prozesuen kudeaketarako: 2 lanpostu 2017ko lan-eskaintzan eta sei 2018koan.

Primero.- Aprobar el Convenio de encomienda de gestión material entre el Ayuntamiento de Eibar y la Academia Vasca de Policía y Emergencias para la gestión de los procesos selectivos de ingreso de dos plazas de Agente de la Escala Básica de Policía Local resultantes de la oferta de empleo 2017 y seis correspondientes a la de 2018.

Bigarrena.- Baimena ematea alkate-udalburu jaunari hitzarmena sina dezan.

Segundo.- Autorizar al señor Alcalde-Presidente para la firma del antedicho Convenio.

Hirugarrena.- Hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Tercero.- Disponer la publicación del Convenio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**4.- Eibarko Udalak eskolaz kanpoko jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko Oinarri arautzaileak aldatzeko proposamena.**

**4.- Propuesta de modificación de las Bases reguladoras para la concesión por parte del Ayuntamiento de Eibar, de subvenciones para realización de actividades extraescolares.**

**Errasti Bernedo jaunak** gogorarazi du bere taldeak dirulaguntza lerro hau sortzea proposatu zuenean, helburua zela herriko adingabe bakar bat ere ez geratzea aisialdirako eta eskolaz kanpoko jarduerak egiteko eskubiderik gabe, eta gainerako umeekiko baldintza-berdintasuna izatea, bere maila sozioekonomikoa gorabehera; izan ere, eskolaz kanpoko jarduera batera joan ahal izateak desberdintasun asko ezartzen ditu eta halaber arrazoi bat izan daiteke bereizkeriarako. Horregatik, zalantzarik gabe, babestu egingo dituzte gaur planteatzen diren hobekuntzak, familia askoz gehiagok aukera izan dezaten laguntza hau eskuratzeko, hala nola Gizarte Larraldietarako Dirulaguntza jasotzen dutenak, Dirusarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenekin batera,

El **Sr. Errasti Bernedo** recuerda que, cuando su grupo propuso la creación de esta línea de subvención, el objetivo era que ningún menor de la localidad se quedase sin su derecho a ocio y actividades extraescolares, en igualdad de condiciones que el resto e independientemente de su nivel socioeconómico, porque el poder acudir a una actividad extraescolar, marca muchas diferencias y puede ser también una razón más para la segregación. Por ello, apoyarán sin duda las mejoras que hoy se plantean, con el fin de que muchas más familias accedan a esta ayuda, como son las familias perceptoras de Ayudas de Emergencia Social, junto con las perceptoras de Renta de Garantía de Ingresos que ya se tienen en cuenta. Así mismo, se prevé subvencionar las cuotas de las

jada kontuan hartzen direnak. Halaber, aurreikusten da Ikasleen Guraso Elkarteen kuotak diruz laguntzea.

Asociaciones de Madres y Padres de Alumnos.

Adibide gisa, azaldu du 2016an 45 eskaera egin zirela, 2017an 78 izan zirela, eta 2018an 53; gainera, hainbat deskontu egiten dira Musika Eskolan eta Marrazki Eskolan, guztira urtean batez beste 60 eskaera, azken 3 urteetan.

A modo de ejemplo, expone que en 2016 se cursaron 45 solicitudes, en el 2017 fueron 78 y en 2018, otras 53, además de los diferentes descuentos previstos en las Escuelas de Música y Dibujo, lo que supone una media de 60 solicitudes anuales durante los últimos 3 años.

Testuinguru horretan, uste du dirulaguntza horiek huskeria bat direla Eibar bezalako Udal batentzat, baina familia horientzat guztientzat ez bakarrik ekonomikoki, baizik eta sozialki ere uste dute laguntza handia dela.

En este contexto, comenta que estas subvenciones representan una cantidad ridícula para un Ayuntamiento como el de Eibar, pero socialmente creen que se trata de una gran ayuda, no solo económica, para todas estas familias.

Hala, Euskal Herria Bildu udal taldeak partida horren aldeko blindajea proposatzen du eta baita haren aldeko sustapena areagotzea ere, bai Ikasleen Guraso Elkarteen bidez, bai dirulaguntza jasotzen duten familien bidez ere.

Así, desde el grupo municipal de Euskal Herria Bildu apuestan por el blindaje de esta partida y por incrementar aún más su promoción, tanto mediante las Asociaciones de Madres y Padres de Alumnos como a través de las propias familias perceptoras.

**Aguirre Unceta andrea** planteatutako aldaketa-proposamenaren alde agertu da.

La **Sra. Aguirre Unceta** se muestra favorable con la propuesta de modificación planteada.

**Jarduneko Alkate-Udalburu jaunak** adierazi du dirulaguntza horiek 2015ean Euskal Herria Bildu udal taldearekin adostutako zuzenketa batean dutela jatorria, eta bat dator orain arte esandakoarekin. Ondorioz, PSE-EE udal taldeak gai-zerrendaren puntu honen aldeko botoa emango du.

El **Sr. Alcalde-Presidente en funciones** indica que estas ayudas tienen su origen en una enmienda acordada en 2015 con el grupo municipal de Euskal Herria Bildu y comparte lo dicho hasta el momento. En consecuencia, el grupo municipal del PSE-EE votará a favor de este punto del orden del día.

**IRIZPENA**

**DICTAMEN**

Ikusita,

Vistos,

I. Goiburuan adierazitako deialdia onartzeko espedientearen instruktore andreak egin duen proposamena.

I. La propuesta de la Instructora del expediente para aprobación de la convocatoria en la cabecera indicada.

II. Kontratazioen eta Diru-laguntzen Unitateko zuzendariaren aldeko txostena

II. El informe favorable del Director de la Unidad de Contratación y subvenciones.

III. Funtsen kontu-hartzailearen fiskalizazio txostena.

III. El Informe de fiscalización del Interventor de Fondos.

Kontuan hartuta 2019ko martxoaren 18ko Kontu, Ogasun eta Ondaren Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio, de 18 de marzo de 2019.

Osoko Bilkurak, aho batez, ondoko erabaki hau hartu du:

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

Eibarko Udalak eskolaz kanpoko jarduerak egiteko dirulaguntzak ebaluazio bakoiztuaren araubidez zuzenean emateko prozedura bitartez esleitzeko Oinarri arautzaileetako 2. artikuluaren aldaketa ONARTZEA.

APROBAR la modificación del Artículo 2 de las Bases reguladoras para la concesión por parte del Ayuntamiento de Eibar, de subvenciones para realización de actividades extraescolares, mediante el procedimiento de concesión directa en régimen de evaluación individualizada.

***2. ARTIKULUA: Onuradunek dirulaguntza eskuratzeko bete behar dituzten baldintzak.***

***ARTÍCULO 2: Requisitos que deben reunir los/as beneficiarios/as para obtener la subvención.***

*Diru-laguntza hauek pertsona fisikoek jaso ditzakete, baldin eta DLOren 13.2 artikuluak ezartzen dituen debeku horietako baten sartzen ez badira eta diru-laguntzen onuradunek honako baldintza hauek betetzen badituzte:*

*Podrán acceder a estas subvenciones, las personas físicas que no incurran en ninguna de las prohibiciones que se establecen en el artículo 13.2 de la LGS, siempre que se cumplan las siguientes condiciones por parte de los/as beneficiarios/as de la subvención:*

- *5-17 urte bitarteko adingabe baten tutoretza izatea (biak barne).*
- *Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren, edo Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzaren titular izatea edo Gizarte-Larrialdietarako Laguntzen onuradun izatea*
- *Eibarren erroldatuta egotea eta benetako bizilekua Eibarko udalerrian izatea dagozkion deialdietan ezarritako eskaera epea hasi aurreko 6 hilabeteetan gutxienez.*
- *Dagozkion deialdietan ezartzen diren eskolaz kanpoko jarduera publikoa burutzeko matrikulatu izana*

- *Tener la tutela de un/a menor de 5 a 17 años (inclusive).*
- *Ser titular de una Renta de Garantía de Ingresos, de la Ayuda de Garantía de Ingresos o ser beneficiario/a de las Ayudas de Emergencia Social*
- *Estar empadronado/a y tener residencia efectiva y real en el municipio de Eibar como mínimo durante los 6 meses anteriores a la fecha de inicio del plazo de solicitud establecida en las correspondientes convocatorias.*
- *Haberse matriculado para la realización de una actividad extraescolar pública que se especifique en las*

*edota herriko ikastetxeeko guraso elkarte baten izenaematea.*

*correspondientes convocatorias y/o estar inscrito en alguna de las asociaciones de madres y padres de alguno de los centros escolares del municipio tal y como se especifique en las correspondientes convocatorias centro escolar de Eibar.*

*DLOren 23.3 artikuluko e) letrak dioena betez, deialdi bakoitzak zehaztuko du baldintzak zein modutan egiaztatuko diren; hori dela eta, eskaerekin batera ekarri behar diren dokumentuak eta argibideak ere deialdiak berak aipatuko ditu.*

*Las correspondientes convocatorias concretarán la forma de acreditar los requisitos, en cumplimiento del artículo 23.2, letra e) de la LGS, a cuyo efecto indicarán los documentos e informaciones que han de acompañarse a las solicitudes.*

**5.- Eibarko Udalak establezimenduetako errotuluak, inskripzioak eta irudi korporatibo elementuak euskaraz edo ele bietan jartzeko emango dituen dirulaguntzen Oinarri arautzaileak onartzeko proposamena.**

**5.- Propuesta de aprobación de las Bases reguladora para la concesión por parte del Ayuntamiento de Eibar de subvenciones para la instalación de rótulos, inscripciones y elementos que componen la imagen corporativa**

**en euskera o en bilingüe en establecimientos.**

**Juez Garmendia andreak** adierazi du dirulaguntza hauen jatorria bere udal taldeak egindako zuzenketa batean dagoela, gainerako talde guztiek babestu zutena, eta Eibarko hizkuntza-paisaia babestea eta aberastea zuena xede. Horretarako, Euskara Batzorde Aholkularian eztabaidatu zen kontua, ahalik eta oinarri arautzaile onenak eta eraginkorrenak lortzeko asmoz.

Gai honi dagokionez, batzuetan nahiko egoera bitxiak gertatzen dira, esaterako, atzerriko dendek euskarazko errotuluak ele bietan izatea eta bertakoek gaztelania hutsean. Helburua, beraz, zera da: inor behartu gabe, errotulazioa euskaraz ere egitea eta hizkuntzaren transmisioa gazteen artean ere erraztea.

La **Sra. Juez Garmendia** señala que estas subvenciones responden a una enmienda de su grupo municipal que fue apoyada por todos los demás con el fin de proteger el paisaje lingüístico de Eibar. Para ello, en el seno de la Comisión Asesora de Euskera se debatió este asunto con el fin de obtener las mejores y eficaces bases reguladoras.

En relación con este asunto, en ocasiones se observan situaciones algo chocantes, como es el caso de comercios extranjeros que presentan su rotulación en bilingüe, frente a establecimientos locales que únicamente rotulan en castellano. Se trata, pues, sin obligar a nadie, de animar a que la rotulación se realice también en euskera y de favorecer la transmisión de la lengua en los más jóvenes.

**Lamarain Cobo andreak** esan du komenigarria izango litzatekeela dirulaguntza ekonomiko horien berri emateko orduan nolabaiteko koordinazio bat egotea udal sailen artean, batez ere,

La **Sra. Lamarain Cobo** indica que sería conveniente que existiera una cierta coordinación entre los diferentes departamentos municipales, sobre todo, en los de Desarrollo Económico y

Garapen Ekonomiko eta Hirigintza sailaren artean. Nolanahi ere, hizkuntza-paisaiari garrantzirik kendu gabe, garrantzitsuagoa iruditzen zaio esparru guztietan euskaraz bizi ahal izateko neurriak hartzea, baita komertzioan ere, bestela, paisaia hori ez litzateke-eta eskaparate polit bat baino gehiago izango, baina benetan inporta duena barruan dago.

Urbanismo, a la hora de informar sobre la existencia de estas ayudas económicas. No obstante, sin restar importancia al paisaje lingüístico, le parece más importante la adopción de medidas que permitan vivir en euskera en todos los ámbitos, también en el comercio, porque, de lo contrario, ese paisaje no sería más que un bonito escaparate, pero lo realmente importante está en el interior.

Horregatik guztiagatik, uste du beharrezkoa dela Akebai plataformak egindako lana, batez ere, haur eta gazteekin, eta, oro har, euskaraz bizitzea ahalbidetzen duten neurriak hartzearen alde lan egiten duten elkarte guztien lana edo merkataritzan dihardutenlangileak euskalduntzea; agian dirulaguntza hauek lagundu egingo dute pauso txiki horiek ematen.

Por todo ello, considera necesario el trabajo desarrollado por la plataforma Akebai, sobre todo con la población infantil y juvenil, y, en general de todas las asociaciones que trabajan en pro de la adopción de medidas que posibiliten vivir en euskera o la euskaldunización del personal que trabaja en el comercio; quizás estas ayudas colaboren a dar esos pequeños pasos.

Baina uste du tresnarik inportanteena hizkuntza-politika dela, eta horretan Udala jarraitu beharreko eredu bat izan behar dela.

Pero, considera que el instrumento más importante es la política lingüística, en relación con la cual el Ayuntamiento debe ser un modelo a seguir.

**Aguirre Unceta andrea** dirulaguntza hauen alde agertu da eta gogorarazi du Euskara Batzorde

La **Sra. Aguirre Unceta** muestra su postura favorable respecto a estas ayudas y recuerda que en la Comisión

Aholkularian erabaki zela euskararen erabilera kalean ez ezik Udalaren eguneroko lanean ere sustatu behar zela.

Asesora de Euskera se acordó que, no sólo debía fomentarse el uso del euskera en la calle, sino también en el trabajo diario del Ayuntamiento.

**Jarduneko Alkate-Udalburu jaunak** esan du bere taldeak babestu egiten dituela laguntza hauek eta hitz ematen du Ekonomia Garapen sailean kontuan hartuak izango direla.

El **Sr. Alcalde-Presidente en funciones** expresa el respaldo de su grupo a estas ayudas y se compromete a tenerlas en cuenta en el Departamento de Desarrollo Económico.

**IRIZPENA**

**DICTAMEN**

Ikusita,

Vistos,

I. Goiburuan adierazitako deialdia onartzeko espedientearen instruktore andreak egin duen proposamena.

II. Kontratazioen eta Diru-laguntzen Unitateko zuzendariaren aldeko txostena

III. Funtsen kontu-hartzailearen fiskalizazio txostena.

I. La propuesta de la Instructora del expediente para aprobación de la convocatoria en la cabecera indicada.

II. El informe favorable del Director de la Unidad de Contratación y subvenciones.

III. El Informe de fiscalización del Interventor de Fondos.

Kontuan hartuta 2019ko martxoaren 18ko Kontu, Ogasun eta Ondaren Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio, de 18 de marzo de 2019.

Osoko Bilkurak, aho batez, ondoko erabaki hau hartu du:

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

Establezimenduetako errotuluak, inskripzioak eta irudi korporatibo elementuak euskaraz edo ele bietan jartzeko dirulaguntzak ebaluazio bakoiztuaren araubidetik zuzenean emateko prozedura bidez emateko Oinarri arautzaileak ONARTZEKO proposamena.

APROBAR las Bases reguladoras para la instalación de rótulos, inscripciones y elementos que componen la imagen corporativa en euskera o en bilingüe en establecimientos, mediante el procedimiento de concesión directa en régimen de evaluación individualizada.

**6.- Eibarko Udalak herritik kanpoko zentroetan adikzio-arazoengatik tratamendua jasotzen duten pertsonen aldeko dirulaguntzak emateko Oinarri Arautzaileak aldatzeko proposamena.**

**6.- Propuesta de modificación de las Bases Reguladoras para la concesión, por parte del Ayuntamiento de Eibar, de subvenciones a favor de personas con problemas de adicciones que reciben tratamiento en centros fuera de Eibar.**

Ikusita,

Vistos,

I. Goiburuan adierazitako deialdia onartzeko espedientearen instruktore andreak egin duen proposamena.

II. Kontratazioen eta Dirulaguntzen Unitateko zuzendariaren aldeko txostena

III. Funtsen kontu-hartzailearen fiskalizazio txostena.

Kontuan hartuta 2019ko martxoaren 18ko Kontu, Ogasun eta Ondaren Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Osoko Bilkurak, aho batez, ondoko erabaki hau hartu du:

**ERABAKIA**

Oinarri arautzaileetako 1, 2, 7, 13 eta 14 artikuluen aldaketa ONARTZEA, Eibarko Udalak dirulaguntzak eman ditzan adikzio arazoak izan eta herritik kanpoko zentroetan tratamendua jasotzen duten pertsonen alde.

I. La propuesta de la Instructora del expediente para aprobación de la convocatoria en la cabecera indicada.

II. El informe favorable del Director de la Unidad de Contratación y subvenciones.

III. El Informe de fiscalización del Interventor de Fondos.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio, de 18 de marzo de 2019.

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, adopta el siguiente:

**ACUERDO**

APROBAR la modificación de los Artículos: 1, 2, 7, 13 y 14 de las Bases reguladoras para la concesión por parte del Ayuntamiento de Eibar, de subvenciones a favor de personas con problemas de adicciones que reciben tratamiento en centros de fuera de Eibar.

1. ARTIKULUA: Oinarrien helburua.

Oinarri hauek Eibarko Udalak emango dituen dirulaguntzak arautzea dute helburu, “ebaluazio bakoiztuaren araubidez eta zuzenean emateko prozedura bidez”, adikzio arazoak izan eta herritik kanpoko zentroetan tratamendua jasotzen duten pertsonen alde ematen diren dirulaguntzak, alegia.

2. ARTIKULUA: Onuradunek dirulaguntza eskuratzeko bete behar dituzten baldintzak.

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke Dirulaguntzetarako Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. atalean aipatzen den debeku horietako baten eraginpean ez dauden pertsona fisikoak, betiere, ondoko baldintza hauek betez gero:

- 18 urte edo urte gehiago izatea.
- Eibarren gutxienez eskaera egiten den eguna baino sei hilabete lehenago erroldatuta egotea.

ARTÍCULO 1: Objeto de las bases.

El objeto de las presentes bases es regular las subvenciones a otorgar por el Ayuntamiento de Eibar mediante el procedimiento de “Concesión directa en régimen de evaluación individualizada” a favor de personas con problemas de adicciones que reciben tratamiento en centros de fuera de la localidad de Eibar.

ARTÍCULO 2: Requisitos que deben reunir los beneficiarios para obtener la subvención.

Podrán ser beneficiarios de estas subvenciones las personas físicas que no se vean afectadas por ninguna de las prohibiciones de los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la LGS, siempre que se cumplan las siguientes condiciones:

- Tener 18 o más años.
- Estar empadronados/as en Eibar como mínimo con 6 meses de antelación a la fecha de realización de la solicitud.

- EHAEko zentro publiko, itunpeko zentro eta gizarte-erakunde batean adkzioen arazoengatik tratamendu bat egiten egotea.

- Estar realizando un tratamiento por problemas de adicciones en alguna entidad social, centro público o concertado de la CAPV.

DLOren 23.3 artikuluko e) letrak dioena betez, deialdi bakoitzak zehaztuko du baldintzak nola egiaztatuko diren; hori dela eta, eskaerekin batera ekarri behar diren dokumentuak eta argibideak ere deialdiak berak jasoko ditu.

Las correspondientes convocatorias concretarán la forma de acreditar los requisitos, en cumplimiento del artículo 23.2, letra e) de la LGS, a cuyo efecto indicarán los documentos e informaciones que han de acompañarse a las solicitudes.

7. ARTIKULUA: Dirulaguntza bakoitzari dagokion zenbatekoa edo zenbatekoa zehazteko irizpideak.

ARTÍCULO 7: Cuantía individualizada de la subvención o criterios para su determinación.

Dirulaguntzaren zenbatekoa deialdi bakoitzean argitaratuko egingo da.

La cuantía de la subvención se publicará en cada convocatoria.

13. ARTIKULUA: Aurretik justifikazioa ekarrita egingo diren ordainketak.

ARTÍCULO 13: Pagos a realizar previa aportación de la justificación.

Onuradunaren aldeko betebeharra aitortu eta ordaindu ahal izateko, derrigorrezko baldintza izango da justifikazioa Deialdi honetan

La presentación de la justificación, en la forma y con los requisitos previstos en la correspondiente convocatoria, y su

aurreikusitako moduan eta bertan adierazitako baldintzetan aurkeztea eta Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduko 84. artikuluak ezartzen duen eran egiaztatzea.

comprobación de conformidad en los términos establecidos en el artículo 84 del RLGS, será condición indispensable para que pueda procederse al reconocimiento de la obligación y su pago a favor del beneficiario/a.

14. ARTIKULUA: Ebazpenaren aldaketa ekar dezaketen inguruabarrak, diru-laguntza emateko orduan kontuan hartu diren baldintzak aldatu izanaren ondorioz sortuak.

ARTÍCULO 14: Circunstancias que, como consecuencia de la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, podrán dar lugar a la modificación de la resolución.

Dirulaguntza hauetan ez da onartzen diru-laguntza emateko ebazpenaren aldaketarik.

En estas subvenciones no se admiten modificaciones de la resolución de concesión.

**7. Ordenantza Fiskalen eta Prezio Publikoen aldaketa – Bidaiarien hiri-garraio zerbitzuaren tasa.**

**7. Modificación de Ordenanzas Fiscales y de Precios Públicos –Tasa por el servicio urbano de viajeros.**

**Aguirre Unceta andreak** esan du ez duela beharrezko ikusten Ordenantza hau aldatzea, aurreikusitako igoerak oso txikiak direlako.

La **Sra. Aguirre Unceta** comenta que no ve necesario modificar estar Ordenanza porque los incrementos previstos son mínimos.

**Lejardi Lejarraga jaunak** berretsi du Gipuzkoako Garrraioaren Batzar Nagusiak proposatutako igoerak oso txikiak direla; 2019ko otsailaren 14an egin zen ohiko bileran, besteak beste, hiru lurralde historikoetan dauden garraio-titulu ezberdinak batzeko erabakia hartu zuten. Hemendik aurrera, Mugi txartelak abantaila batzuk izango ditu: 20 bidaiengatik, hobaria % 46tik % 47ra pasako da, edo txartela kargatzean deskontua % 25ekoa izango da eta ez aurreko % 14a. Hitz batez, garrantzi gutxiko aldaketak dira ekonomiaren ikuspegitik, baina Udal bilkurak onartu behar ditu.

